

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3474

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 2koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzaren idazkariak 2000ko maiatzaren 24an emandako ebazpena zati baten aldatzen duena. Ebazpen haren bitartez, erakunde-nortasunaren eskuliburuko zehaztasunak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan nola aplikatu behar diren onartu zen.

Abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak Eusko Jurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua arautu zuen. Dekretu horren azken xedapenetako lehenean ezarritakoaren arabera, Lehendakaritzaren idazkariak ebazpen bidez zehaztuko du nola aplikatu behar diren erakunde nortasunaren oinarriko zehaztasun eta arauak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan.

Horrela, Lehendakaritzaren idazkariaren 2000ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bitartez, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuko zehaztasunak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan nola aplikatu behar diren onartu zen.

Jurlaritzaren Kontseiluak, 2002ko ekainaren 11n egindako bilkuran, berariazko nortasun-ikur bat onartu zuen Eusko Jurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan aplikatzeko. Ikurra mezu bateratzaile edo «ikurritz» bat zen –Un país en marcha/Aurrera doan herria– eta Eusko Jurlaritzaren erakunde-markaren goialdean txertatuko zen. Ondorioz, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2002ko ekainaren 12an emandako Ebazpenaren bitartez, lehenago aipatutako 2000ko maiatzaren 24ko Ebazpena zati batean aldatu zen, eskuliburu haren publizitate euskarrian sartzeko ikurritza.

Jurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko ekainaren 11n egindako bilkuran, berariazko beste nortasun-ikur bat onartu du, aurrekoa aldatzen duena, Eusko Jurlaritzaren publizitate-kanpaina eta zabalkunde-jarduera guztietan aplikatzeko. Ikurra mezu bateratzaile edo «ikurritz» bat da –«COMPROMISO CON LAS PERSONAS-PERTSONA HELBURU»– eta Eusko Jurlaritzaren erakunde-markaren goialdean txertatuko da.

Horrenbestez, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehendakaritzaren idazkariak 2000ko maiatzaren 24an emandako Ebazpena zati batean aldatzea. Ebazpen haren bidez, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuko zehaztasunak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan nola aplikatu behar diren onartu zen.

Bigarrena.– Eskuliburuaren publizitate-euskarrian mezu bateratzaile edo «ikurritz» bat txertatzea –COMPROMISO CON LAS PERSONAS/PERTSONA HELBURU–, eranskinean zehaztu bezala.

Hirugarrena.– Indarrik gabe uztea Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2002ko ekainaren 12an emandako Ebazpena, Lehendakaritzaren idazkariaren 2000ko maiatzaren 24ko Ebazpena zati batean aldatzen duena. Lehendakaritzaren idazkariaren 2000ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bitartez, Erakunde Nortasunaren Eskuliburuko zehaztasunak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan nola aplikatu behar diren onartu zen.

2013ko uztailearen 31, asteazkena

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailearen 2a.

Lehendakari izan den idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.

EUSKO JAURLARITZAREN CLAIM-a APLIKATZEKO GIDALIBURUA

2013

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZAREN CLAIM-a APLIKATZEKO GIDALIBURUA

2013

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

| | |
|---------------------------------|--|
| Argitaraldia: | 2013ko uztailean |
| Ale-kopurura: | 40 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Lehendakaritza |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco |
| Proiektu-zuzendaritza: | Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia |
| Ardura eta koordinazioa: | Komunikaziorako Zuzendaritza |
| Euskarazkoaren ardura: | IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala |
| Inprimatzea: | Eusko Jaurlaritzaren Inprimategia eta Erreprografia Zerbitzua |
| Lege-gordailua: | VI 203-2013 |

Aurkibidea

Aurkibidea

| | |
|---|---------|
| Sarrera | 6. or. |
| 1. Claim-a | 7. or. |
| 2. Sinboloak | 9. or. |
| 3. Marka eraikitzea | 10. or. |
| 4. Hizkuntzak | 14. or. |
| 5. Koloreak | 15. or. |
| 6. Tipografia | 19. or. |
| 7. Erabilerak | 20. or. |
| 8. Beste marka batzuekin batera agertzea | 21. or. |
| 9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea | 24. or. |
| 10. Ikus-entzunezkoetan aplikatzea | 29. or. |
| 11. Webguneetan aplikatzea | 31. or. |
| 12. Aplikazio okerrak | 34. or. |
| Eranskina. Erantsitako material digitala | 35. or. |

Sarrera

Sarrera

Eusko Jaurlaritzak claim berri bat sortu ondoren, dokumentu honetan claim hori Eusko Jaurlaritzaren markarekin batera nola aplikatu behar den defintitzeko arau sorta bat jaso dugu.

Claim-ak Eusko Jaurlaritzaren filosofia kokatu, irudikatu eta hitzez adierazten du. Beraz, haren filosofia zehatz-mehatz azaltzea merezi du, baita Eusko Jaurlaritzaren marka grafikoki agertzen den testuinguruetan eta baliabideetan nola aplikatuko den ere.

Gidaliburu honen helburua hau da: Eusko Jaurlaritzaren claim berria aplikatzeko jarraibideak dokumentu batean islatzea eta, dokumentu horretan, aipatutako claim-ak Jaurlaritzaren komunikazio guztietan koherentziari eutsi diezaion bete behar diren baldintza teknikoak biltzea.

Claim-a aplikatzeko gidaliburu hau Eusko Jaurlaritzaren Identitate korporatiboaren gidaliburuaren osagarria izango da claim-aren iraunaldian.

Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak (sail guztietako prentsa-arduradunek osatzen dute) gainbegiratuko du claim-a ondo aplikatzen den.

1. Claim-a

1. Zer da claim bat?

Claim-a erakunde, enpresa edo marka baten filosofia, jarrera edo merkataritza-helburuak biltzen dituen esaldi labur bat da.

Claim-a, normalean, marka baten logotipoarekin batera agertzen da, komunikazioen bukaeran.

Markak enpresa bereizi eta nabarmendu dezan, etengabe eta zorrotz aplikatu behar dugu.

Zein dira claim bat edukitzearen abantaila nagusiak?

- **Koherentziaz jokatzek komunikazioa eraginkorra izatea eragiten du.**

Komunikazio guztiak kode grafiko berberarekin sinatuz gero, igorlearen irudi argi eta adierabakarra finkatzen dugu.

Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeen bitartez, Jaurlaritzaren beraren proiektuak entzutetsuagoak izatea lortzen lagunduko digu.

- **Claim-a homogeneizatuz, ahaleginak bateratzen dira.**

Claim-a erabiltzea mezu sektorialen lagungarria eta indargarria da.

- **Filosofia etengabe gogorarazten du.**

Claim-a komunikazio gehienetan agertzeak markaren kokapena indartzen du eta, era berean, sinadura funtzioa betetzen duenez, berme bat da.

1. Claim-a

Eusko Jaurlaritzaren claim-a

Eusko Jaurlaritzaren jarreraren oinarria pertsona bere gobernu-plangintzaren ardatz nagusitzat hartzea da. Pertsona izango da beti haren abiapuntua eta helmuga. Pertsona abiapuntu eta helmuga, arlo guztietan eta dimentsio guztietan.

Hala, claim-aren bitartez ere, Eusko Jaurlaritzak «pertsona helburu» duen ildo baten arabera jokatzeko konpromisoa hartzen du.

Pertsona, jarduera osoari zentzua ematen dion justifikazio modura. Ongizate-egoera eragiten duen arrazoi gisa. Euskal jendarte osoaren interes orokor eta kolektibo gisa.

Claim-a, gaztelaniaz

COMPROMISO CON LAS PERSONAS

Claim-a, euskaraz

PERTSONA HELBURU

2. Sinboloak

2. Sinboloak

Claim-a bi elementuz osatuta dago: testua eta euskal jendarte osoa irudikatzen duten pertsonen sinboloak.

Silueten laguntzaz, Jaurlaritzaren jardueraren muina ikusten dugu: pertsonak eta haien ongizatea dira funtsezkoena.

Sinboloak



Jaurlaritzaren ikuspegitik pertsonak dira garrantzitsuena, hainbeste non claim-aren gauzatze grafikoan sartu baitira.

Claim-a, gaztelaniaz

COMPROMISO CON LAS PERSONAS

Claim-a, euskaraz

PERTSONA HELBURU

3. Marka eraikitzea

3. Marka eraikitzea

Claim-a markarekiko zentratuta eta horizontalki bakarrik aplikatuko da.
Formatu txikien kasuan, zentratuta jartzea aholkatzen dugu.

Marka horizontal elebakarra, koloretan




Marka horizontal elebakarra, koloretan



3. Marka eraikitzea

Marka zentratu elebakarra, koloretan



Marka horizontal elebiduna (salbuespenak salbuespen), koloretan




3. Marka eraikitzea

Ikur-hitza duen marka txikiagotzeko lizentziak


a) Siluetarik gabeko ikur-hitza erabiltzeko lizentzia

Ikur-hitza irakurtzeko modukoa dela bermatzeko, bertan agertzen diren pertsonen ikonorik gabe erabil daiteke, baldin eta haiek ez badira garbi ikusten. Letra-tipo hauekin ikonoak ez erabiltzea proposatzen dugu gutxieneko neurri hauetatik behera:

Elebakarra euskaraz



Elebakarra gaztelaniaz



Elebiduna



3. Marka eraikitzea

b) Gehienezko txikitzea

Hauxe da onartzen den tamaina txikiena. Txikiagoa balitz, ezingo litzateke irakurri.

Markaren gehienezko txikitzea



Markaren gehienezko txikitzea



Markaren gehienezko txikitzea



4. Hizkuntzak

4. Hizkuntzak

Gure proposamena claim-aren esaldi bakarra erabiltzea da (euskara edo gaztelania), euskarri bakoitzeko komunikazio-hizkuntzaren arabera.

Indarra kontzeptu bakarrean biltzea da helburua, komunikazioaren eraginkortasuna hobetze aldera.

Bi hizkuntzatan ere formulatu dugu claim-a, Eusko Jaurlaritzaren logotipoarekin batera, baina gure iritziz oso kasu zehatzetan bakarrik erabili beharko litzateke.

Marka horizontala, koloretan



Marka bertikala, koloretan



5. Koloreak

5. Claim-aren koloreak

Kolorea Euskadiko berdea da. Bertako mendi eta zelaietakoa. Berdea kolore epela da, eta lurrari erreferentzia egiten dio; horrela, gure nortasunarekin zerikusia duten konnotazio beroak hartzen ditu.

Koloretako claim argibideak

PERTSONA HELBURU



KUATRIKROMIA
% 100 ziana
% 100 horia
PANTONE 347 C
PANTONE 355 U

C = **Distira** paperean inprimatzeko kolorea
U = **Mate** paperean inprimatzeko kolorea

Kolore bakarreko claim argibideak

PERTSONA HELBURU



KUATRIKROMIA
% 100 beltza

5. Koloreak

Kolorearen erabilera

Marka horizontal elebakarra, koloretan

COMPROMISO CON LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Marka horizontal elebakarra, koloretan

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Marka zentratu elebakarra, koloretan

**COMPROMISO CON
LAS PERSONAS**

**PERTSONA
HELBURU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

5. Koloreak

Kolorearen erabilera

Marka horizontal elebiduna, koloretan



5. Koloreak

Kolore bakarraren erabilera

Marka horizontal elebakarra, kolore bakarrean



Marka horizontal elebakarra, kolore bakarrean



Marka zentratu elebakarra, kolore bakarrean

**COMPROMISO CON
LAS PERSONAS**



EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

**PERTSONA
HELBURU**



EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

6. Tipografia

6. Tipografia

Claim-erako aukeratu den tipografia **BEBAS NEUE** da.

Industria-aroko egurrezko tipo mugikorrek gogorarazten dituen sans serif (errematerik gabeko) tipografia bat da. Forma zehatz eta arrazionalistek irakurgarritasun handia ematen diote, eta, gainera, egonkortasuna eta segurtasuna transmititzen du.

Claim honetarako kutxa altua erabili dugu, ziurtasun ideia indartzeko. Pertsonetikiko konpromisoa adieraztea asmoen aitortpen sendoa da.

Bebas Neue

**tipografia honek ez dauka letra xeherik*

**ABCDEFGHIJKLMNÑO
PQRSTUVWXYZ
0123456789**

Arial

**testuetarako eta webguneetarako tipografia*

**ABCDEFGHIJKLMNÑO
PQRSTUVWXYZ
abcdefghijklmnopqrstu
vwxyz
0123456789**

7. Erabilerak

7. Erabilerak

Claim-a erabiltzeko, komunikatu beharreko proiektu edo ekimenerako egokia den ikusi beharko da. Politika edo ekimen sozialak jorratzen dituzten proiektuak izan beharko lirateke modu honetan komunikatzeko aproposenak.

a) Publizitatean

Claim-a ondokoetan barne hartuko da: spotetan, iragarki laburretan, prentsan, bideoetan, liburuxketan, karteletan, kanpoaldeko euskarrietan, euskarri interaktiboetan, sare sozialeetan. Iragarki ofizialetan: ez dugu claim-a sartuko.

b) Ekitaldietan eta harreman publikoetan

Claim-a ondokoetan barne hartuko da:

- Azoka eta erakusketetan.
- Harreman publikoetako ekintzetan.
- Sustapenerako objektuetan.
- Jendarteratzean.

c) Jaurlaritzaren paper-gauzetan

Ez da Jaurlaritzaren paper-gauzetan sartuko, ez baitute iragarkiekin edo sustapenarekin lotutako informaziorik ematen.

d) Jaurlaritzaren argitalpenetan

Eusko Jaurlaritzak edo haren mendeko erakunderen batek argitaratzen baditu eta etorkizuneko, garatzen ari den edo bukatu den proiektu bat transmititzen badute, claim-a sartzea editorearen eta/edo argitalpen arduradunaren irizpideen arabera izango da.

e) Ibilgailuetan

Ofizialak baldin badira, ez da sartuko claim-a.

Sustapen ekintza oso zehatzekin lotuta baldin badaude bakarrik erabili ahal izango da claim-a.

f) Seinaletan

Obra baten, proiektu publiko baten, kokapena adierazten duten informazio-paneletan jarri ahal izango da claim-a, panel horiek logotipoa eta claim-a ondo ikusteko moduko neurria baldin badaukate.

Panel indikatibo hutsen kasuan, berriz, ez.


8. Beste marka batzuekin batera agertzea

8. Beste marka batzuekin batera agertzea

Claim-a komunikazioan barne hartzeko oinarrizko arau bat planteatzen dugu. Komunikazioa nork sinatzen duen kontuan hartuta erabakiko dugu claim-a barne hartuko den edo ez.

Eusko Jaurlaritzak bakarrik: sinatzaile bakarra Eusko Jaurlaritza baldin bada, claim-a beti erabiliko da, zehaztutakoaren arabera.

Neurrien erlazioa



Adibidea





8. Beste marka batzuekin batera agertzea

Eusko Jaurlaritzak eta berari lotutako erakundeek batera: aipatutako erakundeak Eusko Jaurlaritzarekin hainbatik hainbatean kolaboratzen duenean bakarrik agertuko da claim-a; kasu horretan, bi markak euskarri berean agertuko dira, eta bien eremua neurri berekoa izango da.

Erakundeak bakarka jarduten badu, ez da claim-a barne hartuko. Eusko Jaurlaritzaren markak beste markaren euskarri berean agertu beharko du, identitate korporatiboaren gidaliburuari jarraikiz, eta lehenak ez du harekin lotutako erakundearen markak duen eremuaren % 30 baino txikiagoa izan behar. Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren markak honelako aipamenen bat izango du: «...-ren erakunde autonomoa», «...-ren sozietate publikoa».


Neurrien erlazioa



1.ºo adibidea




2.ºo adibidea



3.ºo adibidea



4.ºo adibidea



5.ºo adibidea



6.ºo adibidea




8. Beste marka batzuekin batera agertzea

Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde eta enpresa pribatu batzuek batera:

a) Eusko Jaurlaritza nagusi bada: kasu horretan, Eusko Jaurlaritzak izango du komunikazioaren pisua, parte-hartze handiagoa daukalako edo edozein arrazoi dela medio. Marka claim-ari neurri handiagoa emanez aplikatuko da.

Neurrien erlazioa




1.ºo adibidea




b) Bi markek maila bera baldin badaukate: claim-a ez da sartuko eta markaren ohiko aplikazioa errespetatuko da, biei neurri bera emanez.

Neurrien erlazioa




2.ºo adibidea



c) Enpresak Eusko Jaurlaritzak baino pisu handiagoa baldin badauka: Eusko Jaurlaritzaren markaren presentzia bigarren mailakoa edo testigantzazkoa baldin bada, edo marka zerrenda batean agertzen bada, gidaliburu orokorrean adierazita bezala aplikatuko da eta ez da claim-a sartuko, ezingo delako bermatu ondo identifikatu ahal izatea.

Neurrien erlazioa



3.ºo adibidea



Oharra: kasu horretan, aplikatu beharreko arau orokor bat planteatzen da. Hala ere, gure markarekin batera agertuko den enpresaren gidaliburu korporatiboak errespetatzea gomendatzen dugu. Kasu horietan, aplikazio zehatza aztertu eta ezarriko da.


9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea

9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea



Marka eta claim-a inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzen direnean, babes-eremua kontuan hartu beharko da, claim-a sartu ahal izateko. Neurrien arteko erlazioak, ahal den neurrian, ondoko adibideei jarraituko die.

Prentsa eta aldizkariak

Marka sartzearen 1.go adibidea: prentsa, orrialdea
(255x366 mm)
Markaren babes-eremuak




Marka sartzearen 2. adibidea: prentsa, behealdea
(255x144 mm)
Markaren babes-eremuak





9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea

Liburuxkak eta propaganda-tartekoak

**Marka sartzearen 1.º adibidea: liburuxka
(azala, 100 × 210 mm)
Markaren babes-eremuak**



**Marka sartzearen 2.º adibidea: liburuxka etzana
(azala, 100 × 210 mm)
Markaren babes-eremuak**




9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea

Kartelak

Marka sartzearen 1.º adibidea: kartela
(500 × 700mm)
Markaren babes-eremuak




Marka sartzearen 2.º adibidea: kartela etzana
(500 × 700mm)
Markaren babes-eremuak




9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea

Kanpoaldeko publizitatea

Marka sartzearen 1.go adibidea: panela, 3 × 4
Markaren babes-eremuak



Marka sartzearen 2. adibidea: panela, 3 × 8
Markaren babes-eremuak



9. Inprimatzekoak diren euskarrietan aplikatzea

Harreman publikoetako ekintzak

Adibidea: prentsaurrekoa



Printzipioz, claim-a ekitaldian erabiliko den hizkuntzan bakarrik agertuko da.
Baina ekitaldia elebiduna bada, marka eta claim-aren bertsio elebiduna erabiliko da.

10. Ikus-entzunezkoetan aplikatzea

10. Ikus-entzunezkoetan aplikatzea

Telebistako bukaerako kartela

Arau orokor gisa, Eusko Jaurlaritzaren marka barne hartzen duten spot guztien amaieran kartela bat agertuko da, marka eta claim-a hondo zuri baten gainean dituela.

Formatuak:

Spotaren iraupena nolakoa, kartela formatu hauetako batekoa izango da:

- **45" edo gehiago.** Bukaerako kartelak gutxienez 5" iraungo du. Hondo zuri batean, Eusko Jaurlaritzaren marka eta claim-a gainjarriko dira, dagokion lokuzioarekin batera.
- **30".** Bukaerako kartelak gutxienez 3" iraungo du. Hondo zurian, Eusko Jaurlaritzaren marka eta claim-a gainjarriko dira, dagokion lokuzioarekin batera.
- **30" baino gutxiago.** Bukaerako kartelak gutxienez 2" iraungo du. Hondo zuri batean, Eusko Jaurlaritzaren marka eta claim-a gainjarriko dira, dagokion lokuzioarekin batera.

Telebistako sekuentzia



10. Ikus-entzunezkoetan aplikatzea

Irratiko bukaerako isatsa

Iragarki labur guztiek 4^o-ko bukaerako isatsa eduki behar dute, ondoko lokuzioekin: «Compromiso con las personas. Gobierno Vasco» edo «Pertsona helburu. Eusko Jaurlaritza».

Itxiera instituzionala gaztelaniazko iragarki laburretan jarri beharrekoa:

Compromiso con las personas
Gobierno Vasco

Itxiera instituzionala euskarazko iragarki laburretan jarri beharrekoa:

Pertsona helburu
Eusko Jaurlaritza

Claim-a deklinatzeko aukera ere badago. Kasu horretan, ondorengo adibidean bezala itxiko da.

• *Aldaera osagarri batekin ixten den iragarki laburra. Hezkuntzako alegiazko iragarki laburra:*

(Sfx: klaseko turuta soinua)

LOK.:

Klasera sartzea pentsatzen hasteko garaia da.

Hilaren hogeita zortzian, eskola publikoan 2013-2014 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea irekiko da. Informa zaitez www.hezkuntza.net webgunean.

*Euskal eskola publikoa helburu.**

Itxiera instituzionala:

*Pertsona helburu.
Eusko Jaurlaritza.*


* Esaldi hau claim-ak ekimen edo sail bakoitzaren arabera aldaera osagarriak izan ditzakeela erakusteko besterik ez da.

2013ko uztailaren 31, asteazkena

11. Webguneetan aplikatzea


11. Webguneetan aplikatzea

1.go adibidea: sinadura elektronikoa




11. Webguneetan aplikatzea

2. adibidea: online kokapena > euskadi.net etreko orrialdea



3. adibidea: online kokapena > euskadi.net barruan



11. Webguneetan aplikatzea

4. adibidea: online kokapena > Facebook



5. adibidea: online kokapena > publicitatea

12. Aplikazio okerrak

12. Aplikazio okerrak



Eranskina

Erantsitako material digitala

Marka eta claim-aren bertsioak

Kolore korporatiboa, zuria eta beltza, monotonoa

ai, pdf formatua

Bektorizatua. PC/MAC

Tipografia

Telebistako kartelak

Euskaraz eta gaztelaniaz

psd, jpeg formatua

Sinadura elektronikoak

Elebiduna

9 eredu, sail bakoitzeko bana

jpeg formatua